

E. Allison Peers Sinposioa 2021

‘Erresistentzia imajinarioak Euskal Herrian’

Aurtengo sinposioak erresistentzia imajinarioak hartuko ditu hizpide hiru hitzaldi labur eta mahai-inguru baten bidez. Ekitaldiak arakatuko ditu gizarte aldaketari buruz Euskal Herrian bertan zein haratago sortzen ari diren ikuskera artistiko eta aktibistak. Testuinguru horretatik abiatuta, imajinario alternatiboen garapenaren arrastoari jarraituko diogu alor jakin batzuetan gaindi, hala nola gune liminalak, muga geografiko zein semiotikoak edota elkar gurutzaturiko identitate zein identifikazio-prozesuak. Nola artikulatzen da bidegabekerien, bazterkerien eta indarkerien aurkako erresistentzia periferia espazial, sozial eta sinbolikoetan? Nolako imajinarioak dira gauzagarriak? Nola taxutzen dituzte imajinario horiek praktika sozialak?

Hiru hitzaldiok zein segidako mahai-inguruak arreta berezia jarriko dute ezagutza zein erresistentzia aldatzaileak praktikan nola azaleratzen diren aztertzen, azaleratze horien sorburua hainbat binomioren arteko gurutzaketan egonik, hala nola sormena eta aktibismoa, hizkuntza eta generoa edota estetika eta politika. Aktibista, artista zein akademiko modura dagozkien diziplinarteko ezagutza zein askotariko posizionaltasuna abiapuntutzat hartuta, hizlariak beren eskarmentua baliatuko dute badaezpadako egoeretan zein garai nahasietan arteak duen rolari zein arteak politikarekin duen harremanari buruz eztabaidatzeko. Hizlariak azalduko dute haien lana eta identitateak nola kudeatzen eta negoziatzen dituzten diskurtso menperatzaileen aurrean, zeintzuek hizlarien genero artistiko eta tradizioak, hizkuntza adierazpenak eta testuinguru soziopolitikoak moldekatu egiten baitituzte. Hizlariok ere ibili dituzte emakumezkoek zein bazterturiko generoek desberdinkeria sistemikoen aurrean bizirauteko eta kontrako ikuskera eraldatzailea artikulatzeko ibilitako bide korapilatsuak. Esperientzia propio horiek partekatuko dituzte gurekin euren ikerbide feminista zein ahalegin sortzaile eta politikoak nabigatuz.

Eguna: 2021eko maiatzaren 7a

Ordua: 15:00 – 17:00 (Britainia Handian; 16:00 – 18:00 Euskal Herrian)

Tokia: online

Hizlariak: Uxue Alberdi, Idurre Eskisabel, Arantza Ibarra.

Egitaraua:

15:00 – 16:00 Hitzaldi laburrak

“Generoa, gorputza eta begirada: bertsolaritza tradizioan agentzia aldarrikatuz”

Uxue Alberdi

“Gorputza, Euskal erresistentziaren azken gudu-zelaia”

Idurre Eskisabel

“Filmegintzan sortzen eta gidatzen”

Arantza Ibarra

16:00 – 17:00 Mahai-ingurua

Hizlarien arteko zein ikus-entzuleekiko solasaldia

Ekitaldia ingelesez eta euskaraz egingo da aldibereko interpretazioa bi norabideetan eskainita. Edukiak grabatu egingo dira eta azpitoludun bertsio bat bukatu eta handik gutxira egongo da eskuragarri.



E Allison Peers Symposium 2021

‘Imaginaries of Resistance in the Basque Country’

This year’s symposium will include talks and a roundtable on the theme of imaginaries of resistance. The event will explore emerging artistic and activist visions of social change within and beyond the context of the contemporary Basque Country. Using this context as a starting point, we will follow the development of alternative imaginaries particularly in liminal spaces, across geographical and semiotic borders, and through intersected identities and identifications. How is resistance against injustices, marginalisations, and violences articulated at spatial, social, and symbolic peripheries? What kinds of imaginaries can become possible, and how do they inform social practices?

The three talks, followed by a roundtable, will particularly focus on the practical ways in which transformative knowledges and resistances emerge at the intersection of creativity and advocacy, language and gender, aesthetics, and politics. Given their interdisciplinary background and multiple positionalities as both activists and artists, as well as scholars, the speakers will use their expertise to initiate a conversation on the role of art and its relation to the political in precarious contexts and in turbulent times. The speakers will discuss how they navigate and negotiate their work and their own identities against dominant discourses shaping their artistic genres and traditions, their linguistic expression, and their socio-political context. Drawing upon a feminist inquiry, through their creativity and political struggles, the speakers will share their own experiences of entangled routes used by women and marginalised genders to vocalise a transformative vision against systemic inequalities while also surviving their impact.

Date: Friday, 7 May 2021

Time: 15:00 – 17:00

Venue: online

Panellists: Uxue Alberdi, Idurre Eskisabel, Arantza Ibarra.



ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA

Programme:

15:00 – 16:00 Lectures

“Gender, Body, and Gaze: Claiming Agency in the Bertsolaritza Tradition”

Uxue Alberdi

“The Body, the Last Battlefield of Basque Resistance”

Idurre Eskisabel

“Creating and Guiding in Film-Making”

Arantza Ibarra

16:00 – 17:00 Roundtable

Discussion with the speakers and the audience

The event will be in English and Basque with translation in both languages. The content will be recorded and a version with captions will become available shortly afterwards.

Panellist Bios

Uxue Alberdi



Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) idazlea eta bertsolaria da. Bi ipuin-liburu (*Aulki bat Elurretan*, Elkar, 2007; *Euli-giro*, Susa, 2013), bi nobela (*Aulki-jokoa*, Elkar, 2009; *Jenisjoplin*, Susa, 2017) eta kronika literario bat (*Dendaostekoak*, Susa, 2020) idatzi ditu. Haur literaturan hainbat lan ditu argitaratuak, *Besarkada* (Euskadi Saria 2016) haien artean. Alfonsina Storniren poemak itzuli ditu euskarara, eta hainbat irakurle talde gidatzen ditu. *Kontrako eztarritik* saiakerak 2019ko Saiakera Euskadi Saria jaso zuen. Bertsolaritza eta feminismoa uztartzen dituzten hainbat proiektutan hartzen du parte, besteak beste, *Ez da kasualitatea* bertso saioetan eta Ahalduntze Bertso Eskolan. *Kafkaren aulkia* ikuskizunaren eta bertso saio literarioen bultzatzaileetako bat da. Ez du bertso txapelketetan parte hartzen, plazaz plaza ari da kantari.

Uxue Alberdi Estibaritz (Elgoibar, 1984) is a writer and *bertsolar* – verse improviser. She has published two collections of short stories (*A Chair on the Snow*, Elkar, 2007; *An Atmosphere of Flies*, Susa, 2013), two novels (*Musical Chairs*, Elkar, 2009; *Jenisjoplin*, Susa, 2017), and a literary chronicle (*Stories from the Back Room*, Susa, 2020). She has also published children's literature, for example *The Hug*, which got the Euskadi Prize in 2016. She has translated Alfonsina Storni's poems into Basque, and chairs several book clubs. The essay *Choking* won her the 2019 Euskadi Prize for Essays. She participates in several projects that bring together feminism and *bertsolaritza* – verse improvising – such as the bertsolaritza sessions *It is not a coincidence* and the Ahalduntze Bertso Eskola – The Empowering Verse School. She is one of the promoters of the play *Kafka's Chair* and the literary bertsolaritza sessions. She does not take part in bertsolaritza championships – she just sings at popular sessions.

Idurre Eskisabel



Idurre Eskisabel Larrañaga (Beasain, 1970). Kazetaria, ikerlaria eta idazlea. Kazetaritzan eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziaduna, azken urteetan irakasle da EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean. Aurretik, Euskaldunon Egunkaria eta Berria egunkarietan kazetari aritua, egun zutabegile da Berria egunkarian eta kolaboratzaile Euskadi Irratian edota Radio Euskadin. Ikerketa arloan, nazio iruditeria eta haren eraikuntza mediatikoa, sexu/genero sistema eta nazio eraikuntzen arteko harremana, eta hizkuntza eta generoaren arteko uztarketak ditu langai. *Trikua esnatu da. Euskaratik feminismora eta feministotik euskarara* liburua argitaratu zuen 2019an Lorea Agirrerekin batera, Euskadi Literatur sarietan saiakera arloko finalista izan zena. Literatur arloan, *Goseak janak* izeneko poemabilduma argitaratu zuen 2018an. Eskafandra kolektibo feministako kidea da.

Idurre Eskisabel Larrañaga (Beasain, 1970) is a journalist, researcher, and writer. She graduated in Journalism and Cultural Anthropology, and in the last few years she has become a lecturer at the



Basque Country. She worked as a journalist for the newspapers Egunkaria and Berria, and nowadays is a columnist for Berria and collaborates with Euskadi Irratia and Radio Euskadi – the Basque public radio. Her research interests range from national imaginaries and how they are constructed in the media, to the relation between sex/gender systems and nation-building processes, and the intersectionality between language and gender. In 2019, she co-authored with Lorea Agirre the book *The Hedgehog has Woken Up. From the Basque Language to Feminism and from Feminism to the Basque Language*, which was the runner-up at the Euskadi Prize for Essays. She published the collection of poems *Eaten by Hunger* in 2018. She is a member of the feminist group Eskafandra.

Arantza Ibarra

Arantza Ibarra ondarrutarra, zinegilea, idazlea eta sortzailea da. Bere lan-ibilbidea publizitate eta



komunikazioaren arloan garatu da iragarkiak eta artea ekoitziz. 2011an Zinemaldian estreinatu zuen bere lehen film luzea, *Zigortzaileak*, Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren laguntzaz eta munduko hainbat jaialditan estreinatu zen zinema-aretoetara heldu aurretik. Bere bigarren filmea *La Ama* thrillerra, Jaenen grabatu zen eta 2016an aurkeztu zuen hainbat jaialditan, aurten Filminen estreinatuz. Bideoartista bezala, Bartzelonako nazioarteko *Bang* jaialdian Ikusleen Bigarren Saria irabazi zuen *Siento, siento* bideoartearekin. Horrez gain, film labur ugari egin izan du, azkena *Mi pequeño gran Samurai* dokumentala, mundu guztian ari dena pila bat sari eta hautaketa jasotzen. Idazle bezala hainbat liburu dauzka argitaraturik Erein, Desclee eta Hiria argitaletxeekin. Eleberri grafiko bat ere badauka *Mobilak* izenekoa, Ediciones Beta argitaletxearekin. 2020an aldaketa handi bat eman zuen bere ibilbidean liburu heldu eta sakon bat idatziz, bere esnaera espiritualari buruz *Año 2020. El arcángel Metatrón y otros seres de luz* izenarekin eta Kolima argitaletxeak kaleratuta. Bestalde, zine kritikari ibili da EITBko Azpimarra saioetan eta gaur egun Iruñeako Xaloa telebistan ere lan egiten du zine aditu bezala.

Arantza Ibarra, resident in Ondarru, is a filmmaker, writer, and artist. She has developed her professional career in the fields of marketing and communications as a creator of advertisements and art. She made her debut as a feature filmmaker in 2011 at the Donostia-San Sebastian International Film Festival with *The Punishers*, which was subsidised by the Basque Government and EITB – the Basque public TV and radio – and was screened at several festivals around the world and then at commercial cinemas. Her second film was the thriller *Mum*, shot in Jaén, and screened at several festivals in 2016 as well as in Filmin currently. Her piece of video art *I Feel, I feel* was awarded the Second Prize of the Audience at the Bang International Festival in Barcelona. She has also made many short films, and recently the documentary *My Little Samurai*, which is being selected by many festivals across the world and given many awards. She has also published literary works with Erein, Desclee and Hiria. She is the author of the graphic novel *The Mobiles* (Ediciones Beta). In 2020, she took a sharp turn in her career, publishing *Year 2020. The Archangel Metatrón and other Beings of Light* (Kolima), a mature and profound book testimony to her spiritual awakening. She has been a cinema critic for EITB's show Azpimarra and currently for the TV channel Xaloa in Pamplona.